

Ekainak 28

LGTBIQ+ Kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren Manifestua

Gaur, ekainaren 28an, LGTBI+ kolektiboaren Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren Nazioarteko Eguna da. Egun honetan berretsi nahi dugu pertsona guztien elkarbizitzarekin eta eskubideekin dugun konpromisoa, **sexu-orientazioa** edo **genero-identitatea** kontuan izan gabe.

LGTBI+ pertsonen eskubide eta askatasun gehiago izan ditzaten egindako bidea

eta lortutako aurrerapenak ospatzen ditugu. Baina gogoan dugu ere egiteko asko dagoela benetako berdintasuna egon dadin.

Oso garrantzitsua da bidegabekeriak sufritzen dituzten pertsonak defendatzea eta honen aurka ahotsa goratzea. Pertsona guztiok lagundu dezakegu gizartea bidezkoagoa, errespetuzkoagoa eta aniztasunarekin irekiagoa izan dadin. Gauzak benetan alda ditzakegu bakarrik elkarrekin jarduten badugu, bai pertsona bakoitzak, bai gobernuen politikaetatik.

Badakigu azken urteetan gizartea aurreratu dela sexu- eta genero-aniztasuna onartzean. Hala izan da, pertsona, elkarte, talde eta erakunde askok lan egin dutelako kolektibo horiek ikusarazteko, onartuak izan daitezen eta ideiak eta pentsatzeko moduak aldatzeko. Euskal gizarteak erakutsi du aurrera egin dezakeela, oztopoak hautsi ditzakeela eta pertsona guztiak aske bizitzeko espazioak sor ditzakeela.

Sexu-orientazioa: pertsona batek beste pertsonetikiko sentitzen duen erakapen sexuala, pertsona horren sexu-identitatea eta generoa kontuan hartuta. Adibidez, homosexualak, bisexualak, heterosexualak...

Genero-identitatea da pertsona batek nola identifikatzen duen bere burua, genitalak kontuan izan gabe. Adibidez, alua edo zakila duen. Pertsona batzuk gizon gorputzarekin jaio eta emakume sentitzen dira, eta alderantziz. Beste batzuk ez dira ez gizon ez emakume sentitzen.

Aurreiritzia: ezagutu aurretik pertsona edo gai bati buruz izaten den ideia.



Gaur egun, harrotasunez esan dezakegu pertsona bakoitza beldur gabe izan eta bizi daitekeen gizarte bat eraikitzen ari garela, **aurreiritzirik** eta **estigmarik** gabeko gizarte. Baina badakigu asko dagoela egiteko oraindik ere. LGTBIQ+ eskubideen aldeko babes-keinu bakoitza, hitz bakoitza eta ikusgarritasunerako ekitaldi bakoitza, urrats garrantzitsuak dira aurrera egiten jarraitzeko.

Estigma: gizarte edo talde batek zerbaiti buruz duen iritzi negatiboa.

Ekainaren 28a ez da bakarrik gogoratzeko eguna, jarduteko eguna ere bada. Berdindutik giza eskubideekin dugun konpromisoa berresten dugu. Gorroto-diskurtsoen aurrean ez isilik geratzera animatzen zaituztegu. Garrantzitsua da LGTBIQ+ pertsonen aurkako edozein indarkeria, diskriminazio edo bidegabekeria salatzea. Berdintasuna eta askatasuna negoziatzen ez diren eskubideak dira.

Horregatik, pertsona guztiak gonbidatzen ditugu sentibilizatzeko jardueretan parte hartzera eta LGTBIQ+ pertsonen eskubideak defendatzera. Sexu- eta genero-aniztasunaren borroka euskal gizartearen nortasun ikurra izan behar da.

Azkenik, gogorarazten dugu LGTBIQ+ pertsonen eskubideen aldeko borroka komunitate osoaren lana dela. Ezin dugu gorrotoak eta intolerantziak irabaz dezala baimendu. Gaur inoiz baino gehiago, gure aniztasunean elkartu behar dugu eta elkarrekin lan egin etorkizunean pertsona guztiak duintasunez, errespetuz eta askatasunez bizi ahal izan daitezen.

